

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 15ean hartutako erabakiaren laburpena. Horren bidez, dirulaguntza-deialdia onetsi da Vitoria-Gasteizko udalerrian energia-komunitateen sorrera/eraketa eta kudeaketa bultzatzeko eta komunitate horien jabetzakoak diren eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan inbertitzeko, autokontsumo kolektiboko erregimenean

BDNS (Identif.): 798696.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/798696>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehena. Onuradunak

Diruz lagundu daitekeen 1. kontzepturako (energia-komunitatea eratzea eta kudeatzea): Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan inskribatuta dauden elkarteak, pertsona fisikoek, enpresa txiki eta ertainek edo erakunde publikoek osatuak, talde eragile gisa, baldin eta energia-komunitate bat eratu nahi badute eta bazkide gehienek jarduera ekonomikorik egiten ez badute.

Diruz lagundu daitekeen 2. kontzepturako (eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan inbertitzea): nagusiki bizitegi-tako kontsumitzaileek osatutako komunitate energetikoak, zeinek ez baitute jarduera ekonomikorik egingo.

Bigarrena. Xedea

Honako hauek finantzatzeko dirulaguntzak emateko prozedura arautzea:

– Energia-komunitatea eratzea eta kudeatzea (1. kontzeptua), hala nola dokumentuak izapidetzeko gastuak eta energia-komunitatea eratzeko eta kudeatzeko web-orriak edo aplikazio informatikoak diseinatu eta lantzeko gastuak.

– Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan inbertitzea, energia-komunitateen autokontsumo kolektiboko erregimenean (2. kontzeptua), hauek barne: proiektu teknikoa idaztea, instalazio fotovoltaikoa egitea eta obra zuzentzea, instalazioa izapidetzeko eta legeztatze beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea, eta web-orriak edo aplikazio informatikoak diseinatzea eta egitea eguneroko kudeaketarako.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

600.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2025eko martxoaren 31n bukatuko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 19a

*Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta
Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administratiboko burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ*